Lehendakaria / Presidente
Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea / Vocal
Imanol Zubizarreta Arteche

Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria
María Yeregui Hernández

**Resolución 12/2022 ebazpena**
Recurso 6/2022 errekurtsoa

ACCIONA CONSTRUCCIÓN SA eta ALTUNA Y URÍA SA enpresek kontratazio arloko errekurtso berezia aurkeztu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuaren 2022ko martxoaren 28ko Foru Aginduaren aurka (FA 44/2022 ES), zeinaren bidez "MUBIL Mugikortasun Adimentsu eta Jasangarriko Zentroaren gauzatze proiektua Eskuzaitzetan" (espedientea: A09/21-O/PE) izeneko proiektuan deskribatutako obrak egiteko kontratua esleitu baitzitzaion CONSTRUCIONES MOYUA SL eta CONSTRUCCIONES AMENÁBAR SA enpresek eratuko duten aldi baterako enpresa elkarteari. Hori dela eta, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaurko egunean burututako saioan, gorago adierazi diren kideak bertan zirela, aho batez onartu du ondorengo erabakia.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por las empresas ACCIONA CONSTRUCCIÓN, S.A. y ALTUNA Y URÍA, S.A. contra la Orden Foral del Diputado Foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de 28 de marzo de 2022 (FA 44/2022 ES), por la cual se adjudica el contrato para la ejecución de las obras descritas en el "Proyecto de ejecución del Centro de Movilidad Inteligente y Sostenible MUBIL en Eskuzaitzeta" (expediente A09/21-O/PE) a la Unión Temporal de Empresas a constituir por las empresas CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L. y CONSTRUCCIONES AMENÁBAR, S.A., el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo

## AURREKARIAK

**LEHENENGOA.-** 2022ko apirilaren 21ean, auzitegi honetako erregistroan idazki bat sartu zen. Horren bidez, ACCIONA CONSTRUCCIÓN SA eta ALTUNA Y URÍA SA enpresek kontratazio arloko errekurtso berezia jarri zuten ebazpen honen idazpuruan aipatutako foru aginduaren aurka. Errekurtso hori 6/2022 zenbakiarekin erregistratu zen.

**BIGARRENA.-** Auzitegiak Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuari bidali zion errekurtsoa, eta, orobat, kontratazio espedientea eta gaiari dagokion txostena eskatu zizkion, 9/2017 Legeak,

## ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.-** El 21 de abril de 2022 tuvo entrada en el registro de este Tribunal un escrito por el que ACCIONA CONSTRUCCIÓN, S.A. y ALTUNA Y URÍA, S.A. interponen recurso especial en materia de contratación contra la orden foral referida en el encabezamiento de esta resolución; recurso que quedó registrado con el número 6/2022.

**SEGUNDO.-** El Tribunal remitió el recurso al Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público

azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak (SPKL), 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta maiatzaren 2an jaso ziren.

(LCSP), el expediente y el correspondiente informe, que se recibieron el 2 de mayo.

Halaber, ofizio horretan gogorarazi zitzaion, kontuan hartuta errekurtsoa adjudikazio egintza baten aurka aurkeztu zela, kontratazio espedientearen izapidetzea etenda gelditzen zela, SPKL 53. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Le recordó asimismo que, dado que el recurso se había interpuesto contra el acto de adjudicación, la tramitación del expediente de contratación quedaba en suspenso en virtud de lo dispuesto en el artículo 53 LCSP.

**HIRUGARRENA.-** SPKLren 56.3 artikulua betez, errekurtsoaren berri eman zitzaien CONSTRUCCIONES MOYUA SL eta CONSTRUCCIONES AMENÁBAR SA enpresei, eta bost eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

**TERCERO.-** En cumplimiento del artículo 56.3 LCSP se dio traslado del recurso a CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L. y CONSTRUCCIONES AMENÁBAR, S.A., concediéndoles un plazo de cinco días para formular alegaciones.

Alegazio horiek Foru Auzitegiaren erregistroan maiatzaren 10ean sartu zen idazkiaren bidez aurkeztu zituzten, eta, bertan, errekurtso osoa ezesteko eskatu zuten.

Las presentaron mediante escrito que tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 10 de mayo, en el que terminan solicitando la desestimación del recurso en su integridad.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**<u>Errekurtsoaren onargarritasuna</u>**

**<u>Admisibilidad del recurso</u>**

**LEHENENGOA.- Xedea.**

**PRIMERO.- Objeto.**

Errekurtsoa jarri zen 13.744.331,14 euroko balio zenbatetsia duen obra kontratu baten adjudikazioaren aurka.

El recurso se interpone contra la adjudicación de un contrato de obras cuyo valor estimado asciende a 13.744.331,14 euros.

Beraz, aurkaratutako egintzaren aurka kontratazio arloko errekurtso berezia jar daiteke, hala xedatzen baitute SPKLren 44. artikuluko 1.a) eta 2.c) apartatuek.

Por lo tanto, el acto impugnado es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.c) del artículo 44 LCSP.

**BIGARRENA.- Eskumena.**

**SEGUNDO.- Competencia.**

Errekurtso horren berri izateko eskumena Auzitegi honi dagokio, irailaren 28ko kontratazio-alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko 24/2010 Foru Dekretuaren 2.1 artikuluan esleitzen baitzaio.

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**HIRUGARRENA.- Epea.**

Errekurtsoa SPKLren 50.1.c) artikuluan aurreikusitako hamabost egun baliodunko epearen barruan aurkeztu da, kontuan hartuta enpresak esaten duela adjudikazioaren foru aginduaren berri izan duela Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman argitaratu ondoren 2022ko martxoaren 29an.

**TERCERO.- Plazo.**

El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.c) LCSP, si se tiene en cuenta que la empresa dice haber tenido conocimiento de la orden foral de adjudicación tras su publicación en la Plataforma de Contratación Pública en Euskadi el día 29 de marzo de 2022.

**LAUGARRENA.- Legitimazioa.**

Enpresa errekurtsogileak legitimatuta daude errekurtsoa jartzeko, SPKLren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, haiek parte hartu duten lizitazio baten adjudikazioa aurkaratzen baitute.

**CUARTO.- Legitimación.**

Las recurrentes están legitimadas para interponer el recurso de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, dado que impugnan la adjudicación de una licitación a la que han concurrido.

**<u>Gatazkaren planteamendua:</u>**

**<u>Fondo del asunto</u>**

**BOSGARRENA.- Errekurritutako jarduketa**.

Diputatuen Kontseiluak 2021eko azaroaren 16an onartu zuen IDOM CONSULTING, ENGINEERING, ARCHITECTURE SAU enpresak idatzitako “MUBIL Mugikortasun Adimentsu eta Jasangarriko Zentroaren gauzatze proiektua Eskuzaitzetan” izeneko proiektua, 2021eko irailekoa; baita proiektu horretako lanak egiteko kontratazio espedientea ere (espedientea: A09/21-O/PE). Proiektuaren lizitazio aurrekontua 15.147.362,35 eurokoa da (12.518.481,28 euro gehi BEZari dagozkion 2.628.881 euro), eta obrak gauzatzeko epea 15 hilabetekoa.

**QUINTO.- La actuación recurrida**.

El Consejo de Gobierno Foral aprobó el 16 de noviembre de 2021 el proyecto de obras denominado “Proyecto de ejecución del Centro de Movilidad Inteligente y Sostenible MUBIL en Eskuzaitzeta", de fecha septiembre de 2021, redactado por IDOM CONSULTING, ENGINEERING, ARCHITECTURE S.A.U., así como el expediente de contratación para la ejecución de las obras del citado proyecto (expediente A09/21-O/PE), cuyo presupuesto de licitación asciende a la cantidad de 15.147.362,35 euros (12.518.481,28 euros más 2.628.881 euros en concepto de IVA), siendo el plazo de ejecución de las obras de 15 meses.

Era berean, bilkura horretan administrazio klausula partikularren agiria onartu zen (aurrerantzean, AKPA), eta prozedura irekiari hasiera ematea erabaki zen, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAO) eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharreko nahitaezko iragarkien bidez, SPKLren 135.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Asimismo, en dicha sesión se aprobó el pliego de cláusulas administrativas particulares (en adelante, PCAP) y se dispuso la apertura del procedimiento abierto mediante los preceptivos anuncios a publicar en el Diario Oficial de la Unión Europea (DOUE) y en el perfil de contratante, conforme a lo dispuesto en el artículo 135.1 de la LCSP.

Eskaintzak aurkezteko epea amaituta, aldi baterako enpresa elkartea (ABEE) eratzeko

Finalizado el plazo de presentación de ofertas, se recibieron proposiciones de cinco agrupaciones de

konpromisoa hartzen zuten bost enpresa talderen proposamenak jaso ziren:

empresas en compromiso de constituir una unión temporal (UTE):

- ERAIKUNTZA BIRGAIKUNTZA ARTAPENA, S.L. - CYCASA CANTERAS Y CONSTRUCCIONES, S.A.
- FERROVIAL CONSTRUCCIÓN, S.A. - OBRAS ESPECIALES EDIFICACIÓN E INFRAESTRUCTURAS, S.A.U.
- CONSTRUCCIONES URDINBERRI, S.L. - COMSA, S.A.U. - CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS S.A.
- ALTUNA Y URIA, S.A. - ACCIONA CONSTRUCCIÓN, S.A.
- CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L. - CONSTRUCCIONES AMENABAR S.A.

Lizitazioko izapide egokiak egin ondoren, eta zerbitzu teknikoek egindako balorazioaren ondoren, lizitatzaileek puntuazio hauek lortu zituzten:

Realizados los trámites licitatorios oportunos y tras la correspondiente valoración realizada por los servicios técnicos, las licitadoras obtuvieron las siguientes puntuaciones:

| Lizitatzaileak / Licitadoras | Balio judizio bidez baloratu beharreko irizpideak Criterios a valorar mediante Juicio de valor (47 p) | Formulak aplikatuz baloratu beharreko irizpideak Criterios a valorar mediante aplicación de fórmulas (53 p) | Guztira/Total (100 p) |
|---|---|---|---|
| MOYUA - AMENABAR | 37,50 | 23,09 | 60,59 |
| ALTUNA - ACCIONA | 37,25 | 23,26 | 60,51 |
| EBA- CYCASA | 32,61 | 22,62 | 55,23 |
| CAMPEZO - COMSA - URDINBERRI | 31,67 | 23,31 | 54,98 |
| FERROVIAL - OBRAS ESPECIALES | 29,26 | 22,89 | 52,15 |

2022ko martxoaren 4ko aktan jasotakoaren arabera, kontratazio mahaiak proposatu zuen CONSTRUCCIONES MOYUA SL eta CONSTRUCCIONES AMENABAR SA enpresei adjudikatzea kontratua, prozeduran puntuazio handiena lortu zuen eskaintza zelako.

Conforme se refleja en el acta de fecha 4 de marzo de 2022, la mesa de contratación propuso adjudicar el contrato a las empresas CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L. y CONSTRUCCIONES AMENABAR S.A., por tratarse de la oferta que obtuvo la mayor puntuación en el procedimiento.

Azkenik, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko diputatuaren 2022ko martxoaren 28ko Foru Aginduaren bidez ebatzi zen kontratua adjudikatzea mahaiaren proposamenaren arabera; eta egintza hori da errekurtso honen xedea.

Finalmente, mediante Orden Foral del diputado del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de 28 de marzo de 2022 se resuelve adjudicar el contrato de acuerdo con la propuesta de la mesa; siendo este acto el objeto del presente recurso.

**Errekurtsoaren xedea: «Obrari esleitutako langileak» irizpidearen balorazioa.**

**El objeto del recurso: la valoración del criterio “personal asignado a la obra”.**

**SEIGARRENA.-** AKPAren ezaugarrien taulako 17. puntuak balio judizio bidez baloratzekoak diren irizpide hauek ezartzen ditu:

**SEXTO.-** El punto 17 del cuadro de características del PCAP establece los siguientes criterios a valorar mediante juicio de valor:

*"Memoria teknikoa: 0 - 47 puntu.*

1. *Obraren analisi kritikoa: 0 – 35 puntu.*

   *Egin beharreko obrei buruzko berariazko ezagutza eta analisi maila balioetsiko da, bai lanen antolamendu justifikatuari dagokionez, bai obrak definitzen dituen proiektuaren xehetasun tekniko guztiei dagokienez, baita ere obraren antolaketa eta prozedurak, eraikinaren eraikuntza-prozesuan esku hartzen duten eragile guztiekin koordinatzea, segurtasun eta osasun baldintza egokietarako beharrekoak diren bitarteko lagungarriak eta babes-bitartekoak ezartzea, dagozkion administrazio betebeherrak, eta lanak gingo diren tokia ezagutzea.*

   *1.go ataleko puntuazioaren xehakapena:*

   - *Proiektuaren analisi xehatua, lehen adireazitakoaren arabera (proiektua bera kopiatu gabe). 20 puntu.*

   - *Gainera, obrak egiteari lotutako une kritikoak identifikatzea baloratuko da, bai egiteko epeetan duten eraginagatik, bai gremio desberdinak elkartzeagatik edo zailtasun teknikoagatik. Baloratuko dira identifikazioaren egokitasuna, analisiaren sakontasuna, azaldutako ezagutza teknikoa eta mugarri horiek segurtasun handiagoz gainditzeko neurrien proposamena, eta, oso bereziki, Tolosako Mubil Fundazioaren egungo egoitzan dagoen 1. laborategiko ekipamendua Eskuzaitzetako behin betiko kokapenera lekualdatu eta martxan jartzeko proposamena, proiektuan sartzen dena. 12 puntu.*

   - *Ingurumen irizpidea. Aldi berean, obraren ingurumen kudeaketarako proposatutako metolologiaren deskribapena eskatzen da, hauei dagokienez: hondakinen kudeaketa zuzena eta minimizazioa, ingurunearen gaineko afekzioen murrizketa, uraren eta energiaren erabilera efiziente eta neurritsua, eta atmosferarako emisioen murrizketa (zaratak, gas kutsatzaileak, CO2, usainak, argi-kutsadura, etab.). 3 puntu.*

2. *Lan programa: 0 - 6 puntu.*

   *Proiektuaren lan programa oinarritzat hartuta, aurreikusitako lanen plangintza xehatua egingo du enpresa lizitatzaileak, eta egin beharreko obren analisi espezifikoa egingo du, lan bakoitzarekin konprometitutako taldeen dimentsionamenduari,*

*"Memoria técnica: de 0 a 47 puntos.*

1. *Análisis crítico de la obra: de 0 a 35 puntos.*

   *Se valorará el grado de conocimiento y análisis específicos de las obras a ejecutar, tanto en lo referente a la justificada disposición de los trabajos, como en lo concerniente a todos los pormenores técnicos del Proyecto que las define, la organización y procedimientos de obra, la coordinación con todos los agentes intervinientes en el proceso constructivo del edificio, la implantación de los medios auxiliares y de protección necesarios para las adecuadas condiciones de Seguridad y Salud, las obligaciones administrativas que correspondan, y el conocimiento del lugar donde han de desarrollarse los trabajos.*

   *Desglose de la puntuación del apartado 1:*

   - *Análisis detallado del proyecto, según lo indicado anteriormente (evitando copiar del propio proyecto). 20 puntos.*

   - *Además, se valorará la identificación de los momentos críticos de la ejecución de las obras, bien sea por su incidencia en los plazos de ejecución, por la confluencia de distintos gremios o por su dificultad técnica. Se valorará lo acertado de la identificación, la profundidad del análisis, el conocimiento técnico expuesto y la propuesta de medidas para superar con mayor seguridad dichos hitos, y muy especialmente la propuesta de traslado y de puesta en marcha del equipamiento del Laboratorio 1 existente en la sede actual de la Fundación Mubil de Tolosa a la ubicación definitiva en Eskuzaitzeta que se incluye en el proyecto. 12 puntos.*

   - *Criterio medioambiental: de forma paralela, se solicita la descripción de la metodología propuesta para la gestión medioambiental de la obra en relación con la correcta gestión y minimización de los residuos, la reducción de las afecciones al entorno, el uso eficiente y moderado de agua y energía y la reducción de emisiones a la atmósfera (ruidos, gases contaminantes, CO2, olores, contaminación lumínica, etc.). 3 puntos.*

2. *Programa de trabajo: de 0 a 6 puntos.*

   *Tomando como base el programa de trabajo del proyecto, la empresa licitadora incluirá una planificación detallada de los trabajos previstos, realizando un análisis específico de las obras a ejecutar en lo referente al dimensionado de equipos*

*eragiketa bakoitzari lotutako errendimenduei eta abarri dagokienez.*

2. *Ataleko puntuazioaren xehakapena:*

   - *Obra-plangintza, epea justifikatuta: 3 puntu.*

   - *Lantaldeen definizioa eta errendimenduen justifikazioa: 3 puntu.*

3. ***Obrari esleitutako langileak. 0 - 6 puntu.***

   ***Lizitatzaileak obrari esleitzen dizkion baliabideak atxikitzeko konpromisoan eskatutakoaz gain (antolaketa, kualifikazioa, esperientzia eta dedikazioa), beste giza baliabide gehigarri batzuk ere balioetsiko dira, eta ez dira baliozkoak izango enpresari dagozkion baliabideen zerrenda generikoak, baizik eta lizitatutako obrara berariaz bideratuta egongo direnak bakarrik.***

*Atal honetan, lizitatzaileak bere puntuazio osoaren % 50 lortu beharko du gutxienez (23,5 puntu), igaroko bada formulak aplikatuz baloratu beharreko irizpideen gaineko bere eskaintza irekitzeko fasera".*

Gainerako puntuazioa formulak aplikatuz esleitzen da. Zehazki, honako irizpide hauek jasotzen dira: prezioa (46 puntu); ingurumen irizpidea, ibilgailu elektrikoen edo hibridoen erabilera (3 puntu); berme epea luzatzea (2 puntu); eta hobekuntza –kalitatea, BIM– (2 puntu).

**ZAZPIGARRENA.-** Balio judizio bidez baloratu beharreko irizpideen puntuazioa esleitzeko, kontratazio mahaiaren oinarri den txosten teknikoak balorazio eskala hau ezartzen du:

| **Kalifikazioa** | **Puntuazio ehunekoa** |
|---|---|
| Bikain altua | % 95 |
| Bikain | % 90 |
| Oso ongi altua, gorantz zuz. | % 85 |
| Oso ongi altua | % 80 |
| Oso ongi altua, gorantz zuz. | % 75 |
| Oso ongi | % 70 |
| Ongi altua | % 65 |
| Ongi | % 60 |
| Nahiko altua | % 55 |
| Nahiko | % 50 |

*comprometidos a cada tajo, rendimientos asociados a cada operación, etc.*

*Desglose de la puntuación, apartado 2:*

- *Planning de obra justificando el plazo. 3 puntos.*

- *Definición de equipos de trabajo y justificación de rendimientos. 3 puntos.*

3. ***Personal asignado a la obra. de 0 a 6 puntos.***

   ***Se valorarán los medios humanos adicionales a los exigidos en el compromiso de adscripción de medios, que la licitadora asigne a la obra (organización, cualificación, experiencia y dedicación), no siendo válidas relaciones genéricas de los recursos pertenecientes a la empresa, sino sólo aquellos que específicamente vayan a estar destinados a la obra licitada.***

*En este apartado el licitador deberá obtener como mínimo el 50% de la puntuación total del mismo (23,5 puntos) para poder pasar a la fase de apertura de su oferta sobre los criterios a valorar mediante la aplicación de fórmulas".*

El resto de la puntuación se asigna mediante la aplicación de fórmulas. Concretamente, se recogen criterios referidos al precio (46 puntos); criterio medioambiental, uso de vehículos eléctricos o híbridos (3 puntos); incremento del plazo de garantía (2 puntos); y mejora -calidad, BIM- (2 puntos).

**SÉPTIMO.-** Para asignar la puntuación de los criterios a valorar mediante juicio de valor el informe técnico en el que se apoya la mesa de contratación parte de establecer la siguiente escala de valoración:

| **Calificación** | **Porcentaje de puntuación** |
|---|---|
| Sobresaliente alto | 95% |
| Sobresaliente | 90% |
| Notable alto corregido al alza | 85% |
| Notable alto | 80% |
| Notable corregido al alza | 75% |
| Notable | 70% |
| Bien alto | 65% |
| Bien | 60% |
| Suficiente alto | 55% |
| Suficiente | 50% |

| | |
|---|---|
| Gutxi altua | % 45 |
| Gutxi | % 40 |
| Oso gutxi | % 0-39 |

«Obrari esleitutako langileak» irizpidearen balorazioari dagokionez, honako hau adierazten du aipatutako txostenak:

*Proposamen guztiak aztertu ondoren, ondorioztatu da obrari esleitutako pertsona guztiek kualifikazio eta esperientzia egokiak dituztela. Era berean, horien egokitasuna justifikatu da, bai pertsona bakoitzak egingo dituen zereginak azalduz, bai organigraman identifikatuz.*

*Beraz, proposamen bakoitzean kontratuari atxikitako pertsona gehigarrien kopurua haztatuko da, haien dedikazioaren arabera. Kopuru haztatu handiena atxiki duen proposamenari puntuazioaren % 100 emango zaio (6 puntu), eta gainerakoei puntuazio txikiagoa emango zaie modu proportzionalean.*

*Dedikazioa «premiaren araberakoa» bezala definitu bada, ez dira kontratuari atxikitako langile gisa zenbatu, lizitatzen den kontratuari zerbitzua eman diezaioketelako edo ez, kontratua gauzatzeko inguruabarren arabera, eta definizio horrek ez du konpromiso irmorik sortzen. Dedikazioa «partziala» bezala definitzen den kasuetan, % 10ari dagokiola ulertu da; izan ere, zehaztugabetasun horrekin zaila da kuantifikatzen dedikazio hori betetzen ote den obra egikaritzen den bitartean.*

*Kasuren batean kontraesana badago memoriaren zati desberdinetan esleitutako dedikazioen artean, zehatzena hartuko da kontuan, edo, halakorik ezean, ehunekorik txikiena.*

*Aurreko lerroetan azaldutako kalkuluak islatzen dituzten taulak erantsi dira:*

**EBA – CYCASA**

| Figura | Kop. | Dedikazioa | Haztap. |
|---|---|---|---|
| Produkzio burua | 1 | % 100 | 1 |
| Obra arduraduna | 1 | % 100 | 1 |
| Kal. eta ingurum. tek. | 1 | % 20 | 0,2 |
| Lan. arrisk. preb. tek. | 1 | % 20 | 0,2 |
| **Guztira** | | | **2,4** |

**FERROVIAL - OBRAS ESPECIALES**

| Figura | Kop. | Dedikazioa | Haztap. |
|---|---|---|---|
| Obrako ordezk. | 1 | % 30 | 0,3 |
| Ingurum arduraduna | 1 | % 30 | 0,3 |
| Kalitateko arduraduna | 1 | % 30 | 0,3 |
| Seg. eta osasun ard. | 1 | % 100 | 1 |
| Produkzio burua | 1 | % 100 | 1 |
| Arkitek. arduraduna | 1 | % 100 | 1 |
| Instal. arduraduna | 1 | % 100 | 1 |
| Admin. arduraduna | 1 | % 100 | 1 |
| Bulego eta topograf.ard. | 1 | % 100 | 1 |
| **Guztira** | | | **6,9** |

| | |
|---|---|
| Deficiente alto | 45% |
| Deficiente | 40% |
| Muy deficiente | 0-39% |

En lo que se refiere a la valoración del criterio de “personal asignado a la obra”, el citado informe señala lo siguiente:

*“Analizadas todas las propuestas se ha concluido que todas las personas asignadas a la obra cuentan con cualificación y experiencia adecuadas. Asimismo, se ha justificado su idoneidad, bien sea mediante la explicación de las tareas que cada persona va a realizar, bien sea por su identificación en el organigrama.*

*Por tanto, se ponderará el número de personas adicionales adscritas al contrato que se recogen en cada propuesta en relación con su dedicación. A la propuesta que haya adscrito un número ponderado mayor se le calificará con el 100% de la puntuación (6 puntos) y al resto, se le asignará una puntuación menor de forma proporcional.*

*Cuando la dedicación se haya definido como “según necesidad” no se han computado como personal adscrito al contrato, porque pueden dar o no servicio al contrato que se licita dependiendo de las circunstancias en las que se ejecute y dicha definición no da lugar a un compromiso firme. En los casos en que la dedicación se haya definido como “parcial” se ha considerado que se refiere al 10%, porque mediante dicha indefinición su cumplimiento es difícilmente cuantificable durante la ejecución de la obra.*

*Si en algún caso existiera contradicción entre las dedicaciones asignadas en diversas partes de la memoria, se considerará la más exacta, o en su defecto el porcentaje menor.*

*Se adjuntan tablas en las que se reflejan los cálculos expuestos en líneas anteriores:*

**EBA – CYCASA**

| Figura | Nº | Dedicación | Nº pond. |
|---|---|---|---|
| Jefe de Producción | 1 | 100% | 1 |
| Encargado de Obra | 1 | 100% | 1 |
| Téc. Cal. y Med. Am. | 1 | 20% | 0,2 |
| Téc. Prev RL | 1 | 20% | 0,2 |
| **Total** | | | **2,4** |

**FERROVIAL - OBRAS ESPECIALES**

| Figura | Nº | Dedicación | Nº pond. |
|---|---|---|---|
| Delegado de obra | 1 | 30% | 0,3 |
| Resp. Med. amb. | 1 | 30% | 0,3 |
| Resp. calidad | 1 | 30% | 0,3 |
| Resp. Seg. y Salud | 1 | 100% | 1 |
| Jefe de producción | 1 | 100% | 1 |
| Encarg. arquitectura | 1 | 100% | 1 |
| Encarg. Instalaciones | 1 | 100% | 1 |
| Resp. Admción | 1 | 100% | 1 |
| Resp. oficina y topografía | 1 | 100% | 1 |
| **Total** | | | **6,9** |

**URDINBERRI – COMSA – CAMPEZO**

| Figura | Kop. | Dedikazioa | Haztap. |
|---|---|---|---|
| Obrako ordezk. | 1 | % 10 | 0,1 |
| Prod. egitura eta arkitek. ard. | 1 | % 100 | 1 |
| Egitura eta arkitek. ard. | 1 | % 100 | 1 |
| Inst. eta abiarazte ard. | 1 | % 100 | 1 |
| Bul. tek. eta topog. burua | 1 | % 100 | 1 |
| Kal. eta ingurum. ard. | 1 | % 100 | 1 |
| Seg. eta osasun ard. | 1 | % 100 | 1 |
| Administrazioko burua | 1 | % 100 | 1 |
| **Total** | | | **7,1** |

**URDINBERRI – COMSA – CAMPEZO**

| Figura | Nº | Dedicación | Nº pond. |
|---|---|---|---|
| Delegado de obra | 1 | 10% | 0,1 |
| Resp. produc. estruc. y arquitec. | 1 | 100% | 1 |
| Encarg. estruc. y arquitec. | 1 | 100% | 1 |
| Encarg. Inst. y puesta en mar. | 1 | 100% | 1 |
| Jefe ofic. téc. y topog. | 1 | 100% | 1 |
| Resp. cal. y med. Amb. | 1 | 100% | 1 |
| Responsable Seg. y Salud | 1 | 100% | 1 |
| Jefe de administración | 1 | 100% | 1 |
| **Total** | | | **7,1** |

**ALTUNA Y URIA – ACCIONA**

| Figura | Kop. | Dedikazioa | Haztap. |
|---|---|---|---|
| Obrako ord./gerente | 1 | % 25 | 0,25 |
| Produkzio burua | 1 | % 100 | 1 |
| BIM & LEAN manager | 1 | % 10 (partziala) | 0,1 |
| Administrazioa | 1 | % 10 (partziala) | 0,1 |
| Topografía | 1 | % 10 (partziala) | 0,1 |
| Eraikuntzako arduraduna | 1 | % 100 | 1 |
| Hirigintza eta instalazio ard. | 1 | % 100 | 1 |
| Bulego teknikoko burua | 1 | % 100 | 1 |
| Kalitate sistemaren koord. | 1 | % 10 (partziala) | 0,1 |
| Ingurum. sistemaren koord. | 1 | % 10% (partziala) | 0,1 |
| Seg. eta osasuneko koord. | 1 | % 10% (partziala) | 0,1 |
| **Guztira** | | | **4,85** |

**ALTUNA Y URIA – ACCIONA**

| Figura | Nº | Dedicación | Nº pond. |
|---|---|---|---|
| Deleg. de obra/gerente | 1 | 25% | 0,25 |
| Jefe de producción | 1 | 100% | 1 |
| BIM & LEAN manager | 1 | 10% (parcial) | 0,1 |
| Administración | 1 | 10% (parcial) | 0,1 |
| Topografía | 1 | 10% (parcial) | 0,1 |
| Encargado edificación | 1 | 100% | 1 |
| Encargado urban. e instalac. | 1 | 100% | 1 |
| Jefe de oficina técnica | 1 | 100% | 1 |
| Coord. del sistema de calidad | 1 | 10% (parcial) | 0,1 |
| Coord. sistema de med. Amb. | 1 | 10% (parcial) | 0,1 |
| Coord. Seg. y Salud | 1 | 10% (parcial) | 0,1 |
| **Total** | | | **4,85** |

**MOYUA – AMENABAR**

| Figura | Kop. | Dedikazioa | Haztap. |
|---|---|---|---|
| Lur, egitura eta hirig. PB | 1 | % 100 | 1 |
| Obra zibileko ard. | 1 | % 100 | 1 |
| Eraikuntzako PB | 1 | % 100 | 1 |
| Eraikuntzako arduraduna | 1 | % 100 | 1 |
| Instalazioen arduraduna | 1 | % 100 | 1 |
| Bulego tek. eta BIM manager | 1 | % 100 | 1 |
| Topografia | 1 | % 100 | 1 |
| Kalitate kontrola | 1 | % 100 | 1 |
| Ingurumena | 1 | % 100 | 1 |
| Segurtasuna eta osasuna | 1 | % 100 | 1 |
| Administrazioko burua | 1 | % 100 | 1 |
| **Total** | | | **11** |

**MOYUA – AMENABAR**

| Figura | Nº | Dedicación | Nº pond. |
|---|---|---|---|
| JP tierras, estruc. y urban | 1 | 100% | 1 |
| Encargado obra civil | 1 | 100% | 1 |
| JP edificación | 1 | 100% | 1 |
| Encargado edificación | 1 | 100% | 1 |
| Encargado instalaciones | 1 | 100% | 1 |
| Oficina técnica y BIM manager | 1 | 100% | 1 |
| Topografía | 1 | 100% | 1 |
| Control de calidad | 1 | 100% | 1 |
| Medio Ambiente | 1 | 100% | 1 |
| Seguridad y Salud | 1 | 100% | 1 |
| Jefe de administración | 1 | 100% | 1 |
| **Total** | | | **11** |

Txostenak argitzen du gehienez 6 puntu emango zaizkiola langile haztatu gehien dituen proposamenari. Gainerakoei modu proportzionalean eta bi dezimalekin esleitzen zaie puntuazioa. Hau da balorazioaren emaitza:

El informe aclara que se asigna la puntuación máxima de 6 puntos a la propuesta con el número de personal ponderado más alto. Al resto se le asigna la puntuación de forma proporcional y con dos decimales. El resultado de la valoración es el siguiente:

| Enpresak | Haztap. | Puntuak |
|---|---|---|
| ABEE EBA - CYCASA | 2,4 | 1,31 |
| ABEE FERROVIAL - OBRAS ESPECIALES | 6,9 | 3,76 |
| ABEE URDINBERRI – COMSA – CAMPEZO | 7,1 | 3,87 |
| ABEE ALTUNA Y URIA – ACCIONA | 4,85 | 2,65 |
| ABEE MOYUA - AMENABAR | 11 | 6,00 |

| Empresas | Nº pond. | Puntos |
|---|---|---|
| UTE EBA - CYCASA | 2,4 | 1,31 |
| UTE FERROVIAL - OBRAS ESPECIALES | 6,9 | 3,76 |
| UTE URDINBERRI – COMSA – CAMPEZO | 7,1 | 3,87 |
| UTE ALTUNA Y URIA - ACCIONA | 4,85 | 2,65 |
| UTE MOYUA - AMENABAR | 11 | 6,00 |

## ZORTZIGARRENA.- Errekurtsogileen jarrera.

Aldez aurretik, errekurtsogileek uste dute txosten teknikoan egindako balorazio taulen edukia heterogeneoa dela; izan ere, erabiltzen duen

## OCTAVO.- La postura de las recurrentes.

Con carácter previo, las recurrentes consideran que el contenido de las tablas de valoración efectuadas en el informe técnico resulta heterogéneo, ya que,

formulatik abiatuta, zaila da enpresa lizitatzaileek proposatutako langileak alderatzea, bai adierazitako lanpostuen izendapen desberdinagatik, bai enpresa bakoitzak konprometitutako baliabideen guztizko kopuruagatik.

partiendo de la fórmula que adopta, el personal propuesto por las diferentes empresas licitadoras resulta difícilmente comparable, tanto por la diferente denominación de los puestos señalados, como por el número total de medios comprometidos por cada empresa.

Gaineratu dutenez, proposamenen edukia egiaztatu ondoren, balorazioaren emaitza asimetrikoa egiaztatu ahal izan dute, konprometitutako langileen kopurua desberdina delako eta izen desberdineko lanpostuak dituztelako; are gehiago, eskaintzaren batean gertatu da pertsona bakar batek egitea beste eskaintza batzuetan bik egiten duten jarduera.

Añade que, tras comprobar el contenido de las proposiciones, ha podido constatar el resultado asimétrico de la valoración, consecuencia de que el número de personal comprometido resulta dispar y con puestos de diferente denominación, dándose incluso el caso de que en alguna de las ofertas una sola persona desempeña una actividad que en otras es desempeñada por dos.

Emaitza, errekurtsogileen ustez, arbitrarioa eta diskriminatzailea den balorazio bat da, hainbat arrazoirengatik; eta Auzitegiak, azalpena argiagoa izan dadin, errekurtsoa jartzeko idazkian azaltzen diren hurrenkera berean aztertuko ditu. Aldez aurreko balorazio horretatik abiatuta, errekurtsoa bi ataletan egituratuta dago: a) «Obrari esleitutako langileak» irizpideari dagokion zuzenbidearen aurkako balorazioa, eta b) akatsa formula aplikatzean.

El resultado es, a su juicio, una valoración arbitraria y discriminatoria por varios motivos que, en aras de una mayor claridad expositiva, el Tribunal va a analizar en el mismo orden en el que se exponen en el escrito de interposición del recurso. Partiendo de esta valoración previa, el recurso se estructura en dos apartados: a) la valoración contraria a derecho del criterio "personal asignado a la obra", y b) error en la aplicación de la fórmula.

a) «Obrari esleitutako langileak» irizpidearen balorazioa.

a) Valoración del criterio "personal asignado a la obra".

Azaldu den bezala, AKPAren ezaugarrien taulako 17. puntuak ezartzen du, obra egiteko esleitutako langileen irizpideari dagokionez, lizitatzaileak obrari esleitzen dizkion baliabideak atxikitzeko konpromisoan eskatutakoaz gain beste giza baliabide gehigarri batzuk ere balioetsiko direla. Baieztapen horrekin batera, parentesi artean honako kontzeptu hauek sartzen ditu: *"antolaketa, kualifikazioa, esperientzia eta dedikazioa"*. Ondoren, honako hau ohartarazten du: *«ez dira baliozkoak izango enpresari dagozkion baliabideen zerrenda generikoak, baizik eta lizitatutako obrara berariaz bideratuta egongo direnak bakarrik»*.

Tal y como ya se ha expuesto, el punto 17 del cuadro de características del PCAP establece, en referencia al criterio de "personal asignado a la obra", que se valorarán los medios humanos adicionales a los exigidos en el compromiso de adscripción de medios que la licitadora asigne a la obra. Junto con esa afirmación incluye entre paréntesis los conceptos *"organización, cualificación, experiencia y dedicación",* y a continuación advierte que no serán válidas *"relaciones genéricas de los recursos pertenecientes a la empresa, sino sólo aquellos que específicamente vayan a estar destinados a la obra licitada".*

Errekurtsogileen tesian, proposatutako langileen lau alderdi horiek (antolaketa, kualifikazioa, esperientzia eta dedikazioa) azpi-irizpidetzat edo atal desberdintzat hartu behar dira, eta balorazio zehatza egin behar zaie.

En la tesis de las recurrentes, estos cuatro aspectos del personal propuesto (organización, cualificación, experiencia y dedicación) deben ser considerados como subcriterios o apartados distintos que deben ser objeto de valoración concreta.

Kontratazio mahaiak egindako balorazioak aurkeztutako eskaintza guztiak parekatzen ditu alderdi horietako hirutan, eta obrari atxikitako langileentzat aurreikusitako puntuazio osoa (gehienez 6 puntu) dedikazioaren arabera banatzen du.

La valoración efectuada por la mesa de contratación equipara todas las ofertas presentadas en tres de esos aspectos y distribuye la totalidad de la puntuación prevista para el personal adscrito a la obra (hasta 6 puntos) en función de la dedicación.

Balorazio horrek ez luke beteko AKPAn xedatutakoa bi arrazoi hauengatik, labur azalduta:

- Alde batetik, eskaintza guztiak hiru alderdi horietan parekatzen dituenez, puntuaziorik eman gabe eta haien egokitasuna besterik gabe adieraztera mugatuta, horren ondorioz antolaketako, kualifikazioko eta esperientziako azpi-irizpideak kaudimen teknikoko irizpide bihurtzen ditu bidegabeki.

- Bestalde, uste du balorazioak ez duela betetzen Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiaren (KEAA) eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren (EBJA) doktrina bateratua azpi-irizpideak erabiltzeari buruz eta kontratazio mahaiak AKPAn jasotako azpi-irizpideetarako puntuazio banakatua ezartzeko aukerari buruz, dokumentu horretan puntuazio zehatz hori ezarri ez denean.

Esta valoración incumpliría lo dispuesto en el PCAP por dos razones que, expuestas de modo sintético, serían las siguientes:

- Por un lado, al equiparar todas las ofertas en esos tres aspectos, sin otorgarles puntuación alguna y limitarse a declarar su idoneidad por igual, tiene la consecuencia de transformar indebidamente los subcriterios de organización, cualificación y experiencia en criterios de solvencia técnica.

- Por otro lado, considera que la valoración incumple la doctrina consolidada del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales (TACRC) y del Tribunal de Justicia de la Unión Europea (TJUE) en torno a la utilización de subcriterios, y a la posibilidad de que por parte de la mesa de contratación se establezca una puntuación desglosada para los subcriterios contemplados en el PCAP cuando en este documento no se ha fijado dicha puntuación concreta.

b) Akatsa formula aplikatzean.

b) Error en la aplicación de la fórmula.

Subsidiarioki, errekurtsogileen ustez akats bat gertatu da txosten teknikoan diseinatutako formula aplikatzean. Adierazi dutenez, adjudikaziodunen eskaintzan egiaztatu ahal izan da obrak egiteko konpromisoa hartu duen topografoa bi modu desberdinetan jasota agertzen dela: langileen zerrendan konpromisoa % 100ekoa da, baina langileen organigraman ez da konpromiso zehatzik ageri, eta, aurrez zehaztutako irizpidea aplikatuz gero, topografoaren dedikazioa 0 gisa zenbatu beharko litzateke; izan ere, txosten teknikoan adierazitako azalpenaren arabera, eskaintzaren barruan kontraesanik egonez gero portzentaje txikiena

Con carácter subsidiario, las recurrentes consideran que se ha producido un error en la aplicación de la fórmula diseñada en el informe técnico. Señalan que en la oferta de las adjudicatarias se ha podido comprobar que la topógrafa que han comprometido para la ejecución de las obras aparece reflejada de dos formas distintas: en la relación de personal el compromiso es del 100%, pero en el organigrama de personal no aparece ningún compromiso concreto, y que, en aplicación del criterio predeterminado, la dedicación de la topógrafa debería computar como 0, puesto que, según se desprende de la explicación expuesta en el informe técnico, en caso de existir contradicción dentro de la propia oferta se debe

hartu behar da kontuan. Era berean, erantsi dute hori dela MOYUA-AMENABAR enpresa elkarte bereko obrako ordezkariarekin egin dena, langileen zerrendan «disposizio» (% 0) modura azaltzen baita, eta organigraman «partzial» modura (hau da, % 10).

considerar el porcentaje menor. Añaden, asimismo, que ese trato es el que se ha dispensado al Delegado de obra de la propia agrupación MOYUA-AMENABAR, que en la relación de personal aparece como "disposición" (0%) y en el organigrama como "parcial" (es decir, 10%).

Uste dute, aurrez zehaztutako irizpidearen arabera, ez zitzaiela punturik eman behar, baina tratua desberdina izan da: topografoa baloratu da, baina obrako ordezkaria ez.

Estiman que, según el criterio previamente determinado, no deberían haberse puntuado, pero el trato ha sido dispar: la topógrafa sí se ha valorado, pero el Delegado de obra no.

Antzeko egoera salatzen dute beren ABEEko obrako ordezkari/gerentearen kasuan eta EBA-CYCASA ABEEko kalitateko eta ingurumeneko teknikarien kasuan.

Denuncian una situación similar en el caso del Delegado de obra/Gerente de la UTE y los técnicos de calidad y medio ambiente de la UTE EBA-CYCASA.

Horren guztiaren ondorioz, honako hau eskatzen diote auzitegi honi:

i) Baliogabetzeko eta ondoriorik gabe uzteko «obrari esleitutako langileak» atalean emandako puntuazioa, eta atal hori berriz baloratzeko agindua emateko, hori erabakiko duen ebazpenean zehaztutako moduan.

ii) Baliogabetzeko eta ondoriorik gabe uzteko kontratazio mahaiak gerora egindako dokumentu guztiak, baliogabetu beharreko puntuazioa onartzen duten neurrian:

a. Hirugarren zenbakiko artxibo elektronikoen irekiera- eta azterketa-akta, 2022ko martxoaren 2koa.
b. Adjudikazio proposamena organo eskudunari bidaltzeko akta, 2022ko martxoaren 4koa.
c. Kontratua adjudikatzeko foru agindua.

iii) Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuari agintzeko jarduketeten atzeraeragina eta, «obrari

Como consecuencia de todo ello solicitan a este Tribunal:

i) Anular y dejar sin efecto la puntuación otorgada en el apartado "personal asignado a la obra", ordenando que se proceda a realizar una nueva valoración del mencionado apartado en los términos de la resolución que la acuerde.

ii) Anular y dejar sin efecto todos los documentos posteriores elaborados por la Mesa y el Órgano de contratación, en la medida que asuman la puntuación que debe ser anulada:

a. Acta de apertura y examen de los archivos electrónicos nº tres, de fecha 2 de marzo de 2022.
b. Acta de elevación al órgano competente de la propuesta de adjudicación, de fecha 4 de marzo de 2022.
c. Orden Foral de adjudicación del contrato.

iii) Ordenar al Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa la retroacción de las actuaciones y, una vez se haya procedido a realizar la adecuada valoración

esleitutako langileak» atalaren balorazio egokia egin ondoren, kontratazio espedientea izapidetzen jarraitzeko errekurtsogileei adjudikatu arte.

del apartado "personal asignado a la obra", continuar la tramitación del expediente de contratación hasta su adjudicación a las recurrentes.

**BEDERATZIGARRENA.- Erakunde kontratatzailearen jarrera.**

Errekurtsoari buruz egindako txostenak okertzat jotzen ditu errekurtsogileen argudioak. Haren ustez, AKPAk ez du azpi-irizpiderik aurreikusten «obrari esleitutako langileak» irizpidearen barruan. Kontratazio mahaiak obrari esleitutako langile gehigarrien irizpidea baloratzen du, eta bereizi egiten ditu funtsezko alderik ez duten kontzeptuak eta alde nabarmenak dituztenak.

Alde batetik, modu desberdinean baloratu da esleitutako pertsona gehigarrien kopurua, eta, bestetik, balorazio hori homogeneizatu egin da konprometitutako dedikazioarekin.

AKPAn aurreikusi gabeko haztapen koefizienteak sartzeko betekizunei dagokienez, txostenak dio ez direla aldatu AKPAren adjudikazio irizpideak. AKPAn aurreikusi gabeko haztapen faktore edo koefizienteak erabiltzeari buruzko doktrina ez betetzeari dagokionez, honako hau adierazten du, laburbilduta:

- Baliabideen antolaketa, kualifikazioa eta esperientzia baloratu egin dira, baina ez da islatu puntuazioan, guztiak baitira egokiak eta baldintza agiriak ez baitu aurreikusten puntuazioaren banakapena alderdi horietarako.

- Egindako balorazioak ez du jasotzen inolako elementurik, eskaintzak aurkezteko unean ezagutu izan balira eskaintzak prestatzeko orduan eragina izan zezaketenik. AKPAn adierazten denean ezen ez direla baliozkoak izango enpresaren baliabideen zerrenda orokorrak, baizik eta soilik lizitatutako obrarako berariaz erabiliko direnak, horren bidez jakinarazten ari da konpromisoak

**NOVENO.- Postura de la entidad contratante.**

El informe emitido acerca del recurso considera errónea la argumentación de las recurrentes. A su juicio, el PCAP no contempla subcriterios dentro del criterio “personal asignado a la obra”. La mesa de contratación valora el criterio de personal adicional asignado a la obra discerniendo los conceptos en los que no se producen diferencias sustanciales de aquellos en los que las diferencias son claras.

Por un lado, añade, se ha valorado de forma distinta el número de personas adicionales asignado y, por otro lado, se ha homogeneizado esa valoración con la dedicación comprometida.

En cuanto a los requisitos para introducir coeficientes de ponderación no previstos en el PCAP, el informe considera que no se han modificado los criterios de adjudicación del PCAP. Respecto al incumplimiento de la doctrina sobre la utilización de factores o coeficientes de ponderación no previstos en el PCAP señala, expuesto igualmente de forma sintética, que:

- La organización, cualificación y experiencia de los medios ha sido valorada pero no ha tenido reflejo en la puntuación porque todas ellas son adecuadas y el pliego no prevé un desglose de la puntuación para estos aspectos.

- La valoración realizada no contiene elementos que, de haber sido conocidos en el momento de la presentación de las ofertas, habrían podido influir en su preparación. Cuando en el PCAP se explica que no serán válidas relaciones genéricas de los recursos pertenecientes a la empresa, sino sólo aquellos que específicamente vayan a estar destinados a la obra licitada, ya se está informando de que el compromiso debe ser

espezifikoa izan behar duela, hau da, zehatza, mugatua. Beraz, enpresa lizitatzaileek bazekiten eskaintzak ezaugarri horiek izan behar zituela.

- Balorazioa ez da egin kontuan hartuta lizitatzaileren baten kalterako diskriminazio efektua izan dezaketen elementuak. Balio judizioak egin dira txostenaren egileen inpartzialtasunean, kualifikazio teknikoan eta espezializazioan oinarritutako diskrezionalitate teknikoarekin, arbitrariotasunean edo diskriminazioan erori gabe.

**HAMARGARRENA.- Adjudikaziodunen alegazioak.**

Adjudikaziodunek aurkeztutako alegazioek defendatzen dute, modu laburtuan azalduta, AKPAren ezaugarrien taulako 17. puntua irakurriz gero, argi geratzen dela «obrari esleitutako langileak» gisa identifikatutako balorazio irizpidea bakarra dela eta erreferentzia egiten diela «baliabideak atxikitzeko konpromisoan eskatutakoez gain lizitatzaileak obrari esleitutako giza baliabide gehigarriei». Atal honi 6 puntu ematen zaizkio.

Gaineratu dute, argitzeko xedez, zehaztu egiten direla bitarteko gehigarri horiek baloratzerakoan kontuan hartuko diren alderdiak, eta argitzen da ez direla baliozkoak izango enpresaren baliabideen zerrenda generikoak, baizik eta soilik lizitatutako obrarako berariaz erabiliko direnak. Azken batean, uste dute txosten teknikoan egindako balorazioa, kontratazio mahaiak bere egin duena, bat datorrela AKPAn xedatutakoarekin.

**HAMAIKAGARRENA.- Foru Auzitegiaren gogoetak.**

Errekurtsoaren xedeari buruzko jarrera desberdinak azaldu ondoren, argitu beharreko lehenengo gaia da ea AKPAk hainbat azpi-irizpide identifikatzen dituen «obrari esleitutako langileak» irizpidearen barruan, irizpidearen

específico, es decir, determinado, concreto. Por lo tanto, las empresas licitadoras ya conocían que la oferta debía tener estas características.

- La valoración no se ha efectuado teniendo en cuenta elementos que pudieran tener un efecto discriminatorio en perjuicio de alguno de los licitadores. Los juicios de valor se han realizado con una discrecionalidad técnica basada en la imparcialidad, la cualificación técnica y la especialización de los autores del informe, sin incurrir en arbitrariedad o discriminación alguna.

**DÉCIMO.- Alegaciones de las adjudicatarias.**

Las alegaciones presentadas por las adjudicatarias defienden, expuesto igualmente de forma sintética, que de la lectura del punto 17 del cuadro de características del PCAP queda claro que el criterio de valoración identificado como “personal asignado a la obra” es único y se refiere a los “medios humanos adicionales a los exigidos en el compromiso de adscripción de medios que la licitadora asigne a la obra”, otorgándosele a este apartado 6 puntos.

Añaden que, de forma aclaratoria, se concretan los aspectos que se tendrán en cuenta a la hora de valorar estos medios adicionales y se puntualiza que no serán válidas las relaciones genéricas de los recursos pertenecientes a la empresa, sino sólo aquellos que específicamente vayan a estar destinados a la obra licitada. Consideran, en definitiva, que la valoración efectuada en el informe técnico, y asumida por la mesa de contratación, es conforme a lo dispuesto en el PCAP.

**UNDÉCIMO.- Consideraciones del Tribunal.**

Expuestas las diferentes posiciones sobre el objeto del recurso, la primera cuestión a despejar es si dentro del criterio “personal asignado a la obra” el PCAP identifica diferentes subcriterios cuando en la descripción del criterio incluye entre paréntesis

deskribapenean parentesi artean jasotzen dituenean kontuan hartu beharreko lau alderdi: antolaketa, kualifikazioa, esperientzia eta dedikazioa.

cuatro aspectos a tener en cuenta: organización, cualificación, experiencia y dedicación.

Arestian deskribatu den bezala, ezaugarrien taulako 17. puntuak balio judizioaren bidez baloratu beharreko adjudikazio irizpide orokor bakarra ezartzen du, «memoria teknikoa» deitutakoa, eta irizpide horretan 47 puntu lor daitezke, gehienez ere. Irizpide orokor horren barruan, hiru azpi-irizpide daude: i) obraren analisi kritikoa (35 puntu gehienez); ii) lan programa (6 puntu gehienez) eta iii) obrari esleitutako langileak (6 puntu gehienez).

Tal y como se ha descrito anteriormente, el punto 17 del cuadro de características establece un único criterio general de adjudicación a valorar mediante juicio de valor que denomina "memoria técnica", en el cual se pueden obtener hasta un máximo de 47 puntos. Dentro de este criterio general, se contemplan tres subcriterios: i) análisis crítico de la obra (hasta 35 puntos); ii) programa de trabajo (hasta 6 puntos) y iii) personal asignado a la obra (hasta 6 puntos).

Hiru azpi-irizpide horietatik, lehenengo biek puntuazio banaketaren hirugarren maila bat ere aurreikusten dute. Obraren analisi kritikoa beste hirutan banatzen da: i) proiektuaren azterketa zehatza (20 puntu); ii) obrak egiteko une kritikoen identifikazioa (12 puntu) eta iii) ingurumen irizpidea (3 puntu). Lan programa, halaber, beste bi zatitan banatzen da: i) obraren plangintza, epea justifikatuz (3 puntu) eta ii) lan ekipoen definizioa eta errendimenduen justifikazioa (3 puntu).

De esos tres subcriterios, los dos primeros prevén también un tercer nivel de división de la puntuación. El análisis crítico de la obra se divide en otros tres: i) análisis detallado del proyecto (20 puntos); ii) identificación de los momentos críticos de la ejecución de las obras (12 puntos) y iii) criterio medioambiental (3 puntos). El programa de trabajo se divide, a su vez, en otros dos: i) planning de obra justificando el plazo (3 puntos) y ii) definición de equipos de trabajo y justificación de rendimientos (3 puntos).

Hala ere, «obrari esleitutako langileak» azpi-irizpideari eskainitako atalak ez du jasotzen puntuazio banaketaren hirugarren maila hori, eta, soilik ezartzen ditu eskaintzak aurkeztean enpresa lizitatzaileek kontuan hartu beharko dituzten alderdiak. Alderdi horiek, halaber, oinarrizko jarraibideak dira, kontratazio mahaiak, diskrezionalitate teknikoak ematen duen marjinaren barruan, azpiatal honetarako aurreikusitako puntuak modu justifikatuan esleitu ahal izan ditzan.

El apartado dedicado al subcriterio "personal asignado a la obra" no contempla, sin embargo, ese tercer nivel de subdivisión de la puntuación, limitándose a establecer los aspectos que las empresas licitadoras deberán tener en cuenta a la hora de presentar sus ofertas, y que constituyen, asimismo, unas pautas básicas con el fin de que, dentro del margen que otorga la discrecionalidad técnica, la mesa de contratación pueda, justificadamente, asignar los puntos previstos para este subapartado.

Arazoa, beraz, honako hau da: jarraibide horiek ezartzerakoan, baldintza agiriak irizpide hori baloratzeko kontuan hartu beharreko lau elementu deskribatzaile sartu ditu, eta hori, errekurtsogileen ikuspegitik, balorazio banaketaren hirugarren maila bat da, kontratazio mahaiak puntuak ematerakoan isla zehatz eta espezifikoa izan behar duena.

El problema, por tanto, surge cuando a la hora de establecer esas pautas el pliego introduce descriptivamente hasta cuatro elementos a tener en cuenta para valorar este criterio, lo cual, desde el punto de vista de las recurrentes constituye un tercer nivel de división de la valoración que tiene que tener un reflejo concreto y específico en la asignación de los puntos por parte de la mesa de contratación.

Interpretazio horrek, ordea, berekin ekarriko luke puntu jakin batzuk ematea alderdi horietako bakoitzari, baldintza agirian aurreikusi ez direnak.

Esta interpretación, sin embargo, conllevaría una asignación de puntos específica para cada uno de estos aspectos que no ha sido prevista en el pliego.

Gogorarazi behar da kontratu publikoen esparruan finkatuta eta onartuta dagoela, oro har, lizitazioa arautzen duen baldintza agiria benetako *lex contractus* izateko printzipioa, eraginkortasun juridikoa duena, ez bakarrik kontratazio organoarentzat, baita hautaketa prozeduran interesa duen ororentzat ere.

Conviene recordar que en el ámbito de los contratos públicos está más que asentado y admitido con carácter general el principio según el cual el pliego que rige la licitación constituye auténtica *lex contractus*, con eficacia jurídica no sólo para el órgano de contratación, sino también para cualquier interesado en el procedimiento de selección.

Beraz, errekurtsoan planteatutako gaietara lehen hurbilketa bat egiteko, Auzitegi honek uste du AKPAk ez duela aurreikusten «obrari esleitutako langileak» irizpidearen azpi-banaketarik, deskribapenean jasotako elementu bakoitzaren balorazio zehatz eta autonomoa egitera behartzen duenik. Besterik da, ordea, puntu horretan xedatutakoak interpretazio zalantzaren bat sor ote dezakeen aplikatzeko orduan, baina errekurtsogileek zalantzan jartzen dutena ez da AKPAren argitasuna, eragozpenik jarri gabe onartu baitzuten lizitazioan parte hartu zutenean, baizik eta kontratazio mahaiak egindako balorazio zehatza, eta eremu horretan diskrezionalitate teknikoa sartzen da jokoan.

Como primera aproximación, por tanto, a las cuestiones planteadas en el recurso, este Tribunal entiende que el PCAP no contempla una subdivisión del criterio “personal asignado a la obra” que obligue a realizar una valoración concreta y autónoma de cada uno de los elementos que se incorporan en su descripción. Cuestión distinta es si lo dispuesto en ese punto puede generar alguna duda interpretativa a la hora de su aplicación, pero lo que se cuestiona por parte de las recurrentes no es la claridad del PCAP, que fue asumido al participar en la licitación sin objeción alguna, sino la concreta valoración realizada por la mesa de contratación; ámbito en el que entra en juego la discrecionalidad técnica.

Errekurtsoa batez ere diskrezionalitate teknikoaren eremuan kokatzeak ez du eragozten adjudikazioa berrikusi ahal izatea; izan ere, auzitegi honek azaroaren 19ko 11/2019 Ebazpenean ohartarazi zuenez, diskrezionalitate tekniko hori ez da adjudikazioa egiteko oinarri izan behar diren elementu guztietara proiektatzen, baizik eta soilik beren izaeragatik iritzi tekniko bat behar dutenetara. Hala ere, diskrezionalitate teknikoari dagokion eremuaren barruan, erabakia berrikusteko aukera honako honetara mugatzen da: egiaztatzea Administrazioak bereizkeriaz jokatu ote duen lizitatzaileen artean edo akats nabarmen bat egin duen, erabilitako irizpidea justifikatu duen, irizpide arbitrarioa izan duen edo agintea desbideratu duen.

El hecho de que el recurso se ubique fundamentalmente en el ámbito de la discrecionalidad técnica no impide que la adjudicación pueda ser revisada, ya que como advirtió este Tribunal en su Resolución 11/2019, de 19 de noviembre, aquélla no se proyecta sobre todos los elementos en cuya virtud deba producirse la adjudicación, sino solamente en aquellos que por su naturaleza requieran un juicio propiamente técnico. Ahora bien, dentro del ámbito que sí corresponde a la discrecionalidad técnica, la posibilidad de revisar la decisión se limita a comprobar si la Administración ha actuado con discriminación entre los licitadores o ha incurrido en un error patente, falta de justificación del criterio adoptado, criterio arbitrario o desviación de poder.

Balizko berrikuspen horren marjina mugatzerakoan, lehenengo araua da erabakiak

A la hora de delimitar el margen de esa posible revisión, la primera regla es que las decisiones

arrazoitu egin behar direla (SPKLren 151.1 artikulua), eta, beraz, gure kontrolak hasi behar du aztertzen ea kasu honetan emandako txosten teknikoak nahikoa arrazoi duen ala ez; hau da, ea argi azaltzen duen aurkaratzen den alderdi zehatzean lizitatzaileei esleitutako puntuazioak emateko jarraitu den prozesu logikoa. Prozesu logiko horrek honako hauek jaso behar ditu: balorazioaren xede diren eskaintzen alderdiak deskribatzea, merezi duten iritzia adieraztea eta puntuazio bat esleitzea; betiere, aurkeztutako eskaintzak elkarren artean alderatzeko, baldintza agirietan aurreikusitakoaren arabera.

Dena delako adjudikazio irizpidea hainbat azpi-irizpidetan banatzen bada, txostenak irizpide horiei heldu behar die eta horietako bakoitza banan-banan puntuatu behar du.

Azken batean, arrazoibideak behar den informazioa jaso behar du, interesdunei aukera emateko behar adina oinarritutako errekurtsoa jartzeko adjudikazio erabakiaren aurka (SPKL, 151.2 artikulua).

**HAMABIGARRENA.- Aurretiazko gaiari buruz.**

Errekurtsoak, aurreratu dugunez, hainbat galdera planteatzen ditu txosten teknikoak egindako eta kontratazio mahaiak bere egindako balorazioari buruz.

Hasteko, eta aldez aurretik, zalantzan jartzen du irizpide hori baloratzeko egindako prozesu analitikoa, eduki heterogeneoa duten eskaintza batzuk formula baten bidez konparatzean emaitza asimetriko bat lortzen baita, non eskaintzen arteko puntuazio ezberdinek ez duten proportzio egokia gordetzen.

Hala ere, aldez aurreko kontu horrek agerian uzten du eskaintzak baloratzeko prozesuaren konplexutasun teknikoa, eta, hain zuzen ere, alor horretan du diskrezionalitate teknikoak tarte zabala emaitza logikoa eta behar bezala arrazoitua eskaintzen saiatzeko. Hau da, eskaintza bakoitzean egitura, organigrama edo funtzio

deberán ser motivadas (artículo 151.1 LCSP), y, por lo tanto, nuestro control debe empezar por analizar si el informe técnico emitido en este caso tiene o no una motivación suficiente; esto es, si da o no razón del proceso lógico que lleva a otorgar a los licitadores las puntuaciones asignadas en el concreto extremo que es objeto de impugnación. Ese proceso lógico debe consistir en describir los aspectos de las ofertas sobre los que se emite la valoración, expresar el juicio que merecen y asignarles una puntuación, todo ello con la finalidad de comparar entre sí las ofertas presentadas, y de acuerdo con lo previsto en los pliegos.

Si el criterio de adjudicación de que se trate se divide a su vez en varios subcriterios el informe debe abordarlos y puntuar por separado cada uno de ellos.

En definitiva, la motivación debe contener la información necesaria que permita a los interesados interponer un recurso suficientemente fundado contra la decisión de adjudicación (artículo 151.2 LCSP).

**DUODÉCIMO.- Sobre la cuestión previa.**

El recurso, como se ha avanzado, plantea varias cuestiones sobre la valoración efectuada por el informe técnico y asumida por la mesa de contratación.

De inicio, y con carácter previo, cuestiona el proceso analítico llevado a cabo para valorar este criterio al comparar unas ofertas que presentan un contenido heterogéneo mediante una fórmula a través de la cual se obtiene un resultado asimétrico en el que las diferencias de puntuación entre las diferentes ofertas no guardan la proporción adecuada.

Esta cuestión previa no hace, sin embargo, sino poner de manifiesto la complejidad técnica del proceso de valoración de las ofertas y es precisamente en ese terreno donde la discrecionalidad técnica dispone de amplio margen para tratar de ofrecer un resultado lógico y debidamente motivado. Es decir, si se parte de

desberdinetatik abiatzen bagara, konparazio hori egiteko lan teknikoa nahiko gogorra eta konplexua izango da, edo eztabaidagarria, baina baita saihestezina ere. Hori dela eta, ezin zaio inolako gaitzespenik egin lizitaziora aurkeztutako eskaintzak prozesu logiko eta behar bezala arrazoitu baten bidez homogeneizatzeko lanari.

estructuras, organigramas o funciones diferentes en cada una de las ofertas, la labor técnica para realizar esa comparación resultará más o menos ardua y compleja, o incluso discutible, pero también insoslayable. De ahí que no quepa reproche alguno a la labor de homogeneización, mediante un proceso lógico y debidamente motivado, de las diferentes ofertas presentadas a la licitación.

Argitu behar den gauza bakarra da txosten teknikoak horri buruzko azalpen bat ematen duela honako hau adierazten duenean:

Cabe únicamente aclarar que el informe técnico ofrece una explicación al respecto cuando señala que:

*«proposamen bakoitzean kontratuari atxikitako pertsona gehigarrien kopurua haztatuko da, haien dedikazioaren arabera. Kopuru haztatu handiena atxiki duen proposamenari puntuazioaren % 100 emango zaio (6 puntu), eta gainerakoei puntuazio txikiagoa emango zaie modu proportzionalean.*

*Dedikazioa «premiaren araberakoa» bezala definitu bada, ez dira kontratuari atxikitako langile gisa zenbatu, lizitatzen den kontratuari zerbitzua eman diezaioketelako edo ez, kontratua gauzatzeko inguruabarren arabera, eta definizio horrek ez du konpromiso irmorik sortzen. Dedikazioa «partziala» bezala definitzen den kasuetan, % 10ari dagokiola ulertu da; izan ere, zehaztugabetasun horren bidez zaila da kuantifikatzen dedikazio hori betetzen dela obra egikaritzen den bitartean.*

*Kasuren batean kontraesana badago memoriaren zati desberdinetan esleitutako dedikazioen artean, zehatzena hartuko da kontuan, edo, halakorik ezean, ehunekorik txikiena».*

*“se ponderará el número de personas adicionales adscritas al contrato que se recogen en cada propuesta en relación con su dedicación. A la propuesta que haya adscrito un número ponderado mayor se le calificará con el 100% de la puntuación (6 puntos) y al resto, se le asignará una puntuación menor de forma proporcional.*

*Cuando la dedicación se haya definido como "según necesidad" no se han computado como personal adscrito al contrato, porque pueden dar o no servicio al contrato que se licita dependiendo de las circunstancias en las que se ejecute y dicha definición no da lugar a un compromiso firme. En los casos en que la dedicación se haya definido como "parcial" se ha considerado que se refiere al 10%, porque mediante dicha indefinición su cumplimiento es difícilmente cuantificable durante la ejecución de la obra.*

*Si en algún caso existiera contradicción entre las dedicaciones asignadas en diversas partes de la memoria, se considerará la más exacta, o en su defecto el porcentaje menor”.*

Hori guztia, beraz, AKPAk alderdi guztietan aurretik zehaztuta ez zuen egoera bat argitzeko arrazoietako bat da.

Todo ello, por tanto, constituye parte de la motivación para aclarar una situación que no se encontraba predeterminada en todos sus aspectos por el PCAP.

**HAMAHIRUGARRENA.- AKPAren zenbait irizpide ez baloratzea.**

**DECIMOTERCERO.- Sobre la falta de valoración de varios criterios del PCAP.**

Aldez aurreko gai hori azaldu ondoren, errekurtsogileek uste dute ez dela kontuan hartzen AKPAk ezarritakoa, ez baitu balorazioik eta puntu esleipen autonomorik egiten irizpidearen deskribapenean parentesi artean adierazitako lau elementuetako bakoitzerako: antolaketa, kualifikazioa, esperientzia eta dedikazioa.

Tras exponer esa cuestión previa, las recurrentes consideran que se ignora lo impuesto por el PCAP al no realizar una valoración y asignación de puntos autónoma para cada uno de los cuatro elementos reflejados entre paréntesis en la descripción del criterio: organización, cualificación, experiencia y dedicación.

Auzitegi honek ere ezin du arrazoibide horrekin bat egin, lehenago argitu baitu elementu horiek ez daudela AKPAn azpi-irizpide gisa definituta, puntuazio espezifiko batekin. Horrek ez du esan nahi irizpide hori baloratzerakoan kontuan hartu behar ez direnik, ez eta mahaiak erabateko askatasuna duenik irizpide horretarako aurreikusitako puntuazioa emateko ere; izan ere, diskrezionalitate teknikoaren muga, adierazi den bezala, motibazioaren beharra da, eta arbitrariotasuna debekatzeko, gardentasuneko eta lizitatzaileen arteko tratu-berdintasuneko printzipioek ezartzen duten esparruan garatu behar da.

Este razonamiento tampoco puede ser compartido por este Tribunal, tras haber aclarado anteriormente que esos elementos no están definidos en el PCAP como subcriterios con una puntuación específica. Esto no quiere decir que no tengan que tenerse en cuenta a la hora de valorar el criterio en cuestión, y tampoco que la mesa disponga de libertad total para atribuir la puntuación prevista para este criterio, ya que la discrecionalidad técnica, como ya se ha expuesto, tiene como límite la necesidad de motivación y debe desarrollarse dentro del marco que establecen los principios de interdicción de la arbitrariedad, transparencia e igualdad de trato entre los licitadores.

Kasu honetan, txosten teknikoak badu arrazoibidea, eta irizpidearen deskribapenean aipatzen diren alderdi guztiak aipatzen ditu. Antolaketari, kualifikazioari eta esperientziari dagokienez, honako hau adierazten du *«obrari esleitutako pertsona guztiek kualifikazio eta esperientzia egokiak dituzte»* eta *«era berean, horien egokitasuna justifikatu da, bai pertsona bakoitzak egingo dituen zereginak azalduz, bai organigraman identifikatuz».*

En el presente caso, el informe técnico no carece de motivación y alude a todos los aspectos que se citan en la descripción del criterio. Con respecto a organización, cualificación y experiencia, señala que *"todas las personas asignadas cuentan con cualificación y experiencia adecuadas"* y que *"asimismo, se ha justificado su idoneidad, bien sea mediante la explicación de las tareas que cada persona va a realizar, bien sea por su identificación en el organigrama".*

Errekurtsogileen ustez, balorazio hori puntuazio zehatz batean islatu beharko litzateke, baina arrazoibide hori ez da AKPAn xedatutakotik nahitaez ondorioztatzen dena. Errekurtsoaren abiapuntua atzera begirako balorazio bat da, non, behin lizitazioaren emaitza ikusita, logikoagotzat jotzen baitute beste balorazio bat ─dirudienez beren interesentzat mesedegarriagoa─, AKPAn xedatutakoaren arabera ere posible izan daitekeena. Hala ere, diskrezionalitate teknikoa gauzatzeko nahitaezkoa den objektibotasunak zuhurtzia handia eskatzen du atzera begirako edozein iritziren aurrean, saihestu egin behar baita balorazio prozesu baten azken emaitza ezagutzeak baldintzatu ahal izatea hautaketa prozesua bera. Ildo beretik, eta helburu berarekin, SPKL legeak ezartzen du bereizita aztertu behar direla balio judizioen bidez baloratu beharreko irizpideak eta balorazio automatikokoak.

Las recurrentes consideran que esa valoración debería plasmarse en una puntuación concreta, pero este razonamiento no es el que se deduce necesariamente de lo dispuesto en el PCAP. El recurso parte de una valoración retrospectiva en la cual, una vez visto el resultado de la licitación, consideran más lógica otra valoración –aparentemente más favorable a sus intereses-, que también puede ser posible de acuerdo con lo dispuesto en el PCAP. No obstante, la objetividad que debe guiar el ejercicio de la discrecionalidad técnica exige máxima prudencia ante cualquier juicio retrospectivo, puesto que se ha de evitar que el conocimiento del resultado final de un proceso de valoración pueda llegar a condicionar el propio proceso de selección. En esa misma línea y con el mismo objetivo, la LCSP impone la obligación de analizar separadamente los criterios a valorar mediante juicios de valor y los de valoración automática.

Era berean, ezin da onartu, begien bistako arrazoiengatik, irizpide horren balorazio teknikoak kaudimen teknikoko irizpide bihurtu

Tampoco puede aceptarse, por motivos obvios, que la valoración técnica de este criterio haya transformado los aspectos referidos a la

izana antolaketari, kualifikazioari eta esperientziari buruzko alderdiak. Baieztapen hori egia bada, eskakizun horiek betetzen ez dituen eskaintza oro baztertu egin beharko litzateke lizitaziotik, kontratatzeko gaitasunik ez duelako (SPKL, 65. artikulua). Hala ere, kasu honetan, eskaintzek obrari esleitutako langileen antolaketari, kualifikazioari eta esperientziari dagokienez egokitzat jotzen diren mailak ez lortzeak adjudikazio irizpidearen balorazioan soilik izango luke eragina, baina ez luke lizitatzailea baztertuko.

organización, cualificación y experiencia en criterios de solvencia técnica. De resultar cierta esta afirmación, cualquier oferta que no cumpliera con esos requerimientos debería ser excluida de la licitación por carecer de capacidad para contratar (artículo 65 LCSP). Sin embargo, en el presente caso el efecto de no alcanzar las ofertas los niveles considerados como adecuados en lo referido a organización, cualificación y experiencia del personal asignado a la obra únicamente tendría efecto sobre la valoración del criterio de adjudicación en cuestión, pero no conllevaría la exclusión del licitador.

**HAMALAUGARRENA.- "Dedikazioa" azpi-irizpidearen balorazioaren arbitrariotasunari buruz.**

**DECIMOCUARTO.- Sobre la arbitrariedad en la valoración del subcriterio “dedicación”.**

Errekurtsogileek langileen dedikazioa baloratzeko arbitrariotasuna ere aipatu dute. Hau da, irizpidearen deskribapenean aipatutako beste hiru elementuak modu autonomoan baloratu behar zirela pentsatzeaz gain, puntuazioa esleitzerakoan kontuan hartu den alderdiaren balorazioa arbitrarioa dela uste dute.

Las recurrentes aluden también a la existencia de arbitrariedad en la valoración de la dedicación del personal. Es decir, además de considerar que debían haberse valorado autónomamente los otros tres elementos citados en la descripción del criterio, entienden que la valoración del aspecto que sí se ha tenido en cuenta a los efectos de asignar la puntuación resulta arbitraria.

Errekurtsoak berak aipatzen du KEAAren apirilaren 6ko 342/2017 Ebazpena, zeinak, aldi berean, EBJAren 2008ko azaroaren 24ko epaia aipatzen baitu, gogorarazteko kontratazio mahaiak AKPAn jasotako azpi-irizpideei dagokienez puntuazio banakatua ezartzeko aukerari buruzko doktrina; baina, dokumentu honetan ez da finkatu puntuazio banakatu zehatz hori.

El propio recurso cita la Resolución nº 342/2017, de 6 de abril del TACRC, que, a su vez, cita la sentencia de 24 de noviembre de 2008 del TJUE, para recordar la doctrina sobre la posibilidad de que por parte de la mesa de contratación se establezca una puntuación desglosada respecto de los subcriterios contemplados en el PCAP, cuando en este documento no se ha fijado esa concreta puntuación desglosada.

Doktrina hori, hain zuzen ere, EBJAn finkatuta dago (ildo horretan, honako epai hauek aipa daitezke: 2005eko azaroaren 24ko epaia, C-331/04 auzia, 32. apartatua; 2011ko uztailaren 21eko epaia, C-252/10 P auzia, 32. eta 33. apartatuak; 2016ko uztailaren 14ko epaia; C-6/15 auzia, 26. apartatua; eta 2017ko abenduaren 20ko epaia, C-677/15 P auzia), eta aukera ematen du, eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, kontratazio organoak haztapen koefizienteak zehaztu ahal izateko lizitatzaileei aurrez

Esta doctrina, consolidada, en efecto, en el TJUE (en este sentido, se pueden citar las sentencias de 24 de noviembre de 2005, asunto C-331/04, apartado 32; de 21 de julio de 2011, asunto C-252/10 P, apartados 32 y 33; de 14 de julio de 2016, asunto C-6/15, apartado 26; y de 20 de diciembre de 2017, asunto C-677/15 P), permite que un órgano de contratación pueda determinar, tras la expiración del plazo de presentación de las ofertas, coeficientes de ponderación para los subcriterios que correspondan sustancialmente a los criterios previamente dados a

jakinarazi zaizkien irizpideei funtsean dagozkien azpi-irizpideetarako. Horretarako, errekurtsoan aurreratutako hiru betekizunak ezartzen dira: i) ez ditu aldatu behar baldintza agirian edo lizitazio iragarkian kontratua adjudikatzeko zehaztutako irizpideak; ii) ez du eduki behar inolako elementurik, eskaintzak aurkezteko unean ezagutu izan balira haien prestaketan eragina izan zezaketenik, eta, iii) ez da erabaki behar lizitatzaileren baten kalterako diskriminazio efektua izan dezaketen elementuak kontuan hartuta.

conocer a los licitadores. Para ello se establecen los tres requisitos adelantados en el recurso: i) no debe modificar los criterios de adjudicación del contrato definidos en el pliego de condiciones o en el anuncio de la licitación; ii) no debe contener elementos que, de haber sido conocidos en el momento de la preparación de las ofertas, habrían podido influir en tal preparación y, iii) no debe haber sido adoptada teniendo en cuenta elementos que pudieran tener un efecto discriminatorio en perjuicio de alguno de los licitadores.

Hala ere, doktrina hori kasu honetan nola aplikatzen den aztertu aurretik, komeni da gogoratzea auzitegi honek berak martxoaren 28ko 5/2017 Ebazpenean (hamargarren oinarri juridikoa) balio judizio bidez baloratu beharreko irizpideei buruz adierazi zuena. Orduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak adierazitakoa aipatuz (2016ko abenduaren 14ko epaia, 446/2015 errekurtso arruntean emana), zera esan zen, *balio judizioen arabera eta ez formulak aplikatuz balora daitezkeen eskaintzen elementuak izanik, baldintza agirietan adjudikazio irizpideak deskribatze hutsak, oso zehaz egiten bada ere, ez du ahalbidetzen horiek automatikoki aplikatzea, eta balorazio organoaren interpretazioa eskatzen du, hau da, baldintza agirietan ezarritako irizpideekin bat datozen parametroak edo jarraibideak ezartzea, puntuazioa emateko orduan aplikatzeko edo zehazteko balioko dutelako.*

No obstante, antes de analizar la aplicación de esa doctrina al presente caso, conviene recordar lo que este mismo Tribunal señaló en su Resolución 5/2017, de 28 de marzo (fundamento jurídico décimo) en relación con los criterios a valorar mediante un juicio de valor. Se dijo entonces, citando lo señalado por la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco (sentencia de 14 de diciembre de 2016, dictada en el recurso ordinario 446/2015) que, "*tratándose de elementos de las ofertas valorables con arreglo a juicios de valor y no mediante la aplicación de fórmulas, la sola descripción de los criterios de adjudicación en los pliegos, por precisa que fuere, no permite su aplicación automática, sino que requiere de la función interpretativa del órgano de valoración, esto es, de la fijación de los parámetros o pautas que, acordes a los criterios establecidos en los pliegos, han de servir para la aplicación o concreción de éstos al momento de su puntuación*".

Aurrekoarekin batera, azpimarratu behar da, alde batetik, AKPAk ez duela inolako formularik aurreikusi aurkeztutako eskaintzak homogeneizatzeko adjudikazio irizpide horri dagokionez. Bestalde, enpresak ere ez dira antolamendu eredu bakar batetik edo egitura uniforme batetik abiatzen; hori, bestalde, logikoa da, enpresa bakoitzari baitagokio bere baliabideak antolatzea.

Junto con lo anterior, se ha de insistir, por un lado, en que el PCAP no ha previsto ninguna fórmula que permita homogeneizar las diferentes ofertas presentadas sobre este criterio de adjudicación. Por otro lado, las empresas tampoco parten de un único modelo organizativo o de una estructura uniforme; hecho que, por otra parte, resulta lógico, puesto que corresponde a cada empresa la organización de sus propios medios.

Egoera horri aurre egiteko, eskaintzen balorazio txostenak elementu objektibo batzuk sartu ditu bere proposamena oinarritzeko. Elementu horiek parametrotzat edo jarraibidetzat hartu behar dira, proposamen desberdin eta heterogeneoen azterketa konparatiboa egin ahal izateko. Kontratazio mahaiak bere egin duen eta eskaintza

Para hacer frente a esta situación, el informe de valoración de las ofertas ha introducido una serie de elementos objetivos en los que apoyar su propuesta. Esos elementos deben ser considerados como parámetros o pautas con el fin de poder realizar el análisis comparativo de las diferentes y heterogéneas proposiciones. Forman parte de un método que ha

guztiei berdintasunez aplikatu zaien metodo baten parte dira. Horrekin, beraz, ez dira aldatu AKPAn aurreikusitako adjudikazio irizpideak, baldintza agiriak ez baitu inolako metodorik jasotzen puntuazio hori emateko.

sido asumido por la mesa de contratación y se ha aplicado de forma igualitaria a todas las ofertas. Con ello, por tanto, no se han modificado los criterios de adjudicación previstos en el PCAP, ya que éste no incluye método alguno para otorgar esa puntuación.

Bestalde, egia da metodo bat hartzeak, beste metodo batzuen aldean, nolabaiteko aldea ekar dezakeela balorazioan, baina ez da ahaztu behar irizpide horretan lizitatzaileek badakitela puntuazioa ematen dela kontratazio mahaiak balio judizio bat egin ondoren.

Es cierto, por otro lado, que la adopción de un método frente a otros posibles podría conllevar alguna diferencia en la valoración, pero tampoco debe olvidarse que nos encontramos ante un criterio en el que los licitadores conocen que la puntuación se otorga tras realizar un juicio de valor por parte de la mesa de contratación.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak maiatzaren 13ko 189/2021 epaian adierazi zuen bezala, *ezin dugu ahaztu proiektuen balorazioa kontratazio mahaiari dagokiola, haren ezagutza teknikoen arabera. Horrek esan nahi du haren erabakia ezin dela ordezkatu beste profesional batzuek izan dezaketen irizpidearekin. Irizpide hori guztiz baliozkoa izan daiteke. Hala ere, erabakia hartzea haiei ez dagokienez, kontratazio mahaiari baizik, hark erabakitakoaren mende egon behar dugu. Horrela, kontratazio mahaiaren erabakia ordeztu ahal izango da soilik behar bezala egiaztatzen denean erabaki hura hartu zuenean ageriko oker bat egin zuela, edo arbitrariotasunean erori zela, edo baldintza agirietan xedatutakoa urratuz jardun zuela* (seigarren oinarri juridikoa).

Tal y como ha señalado el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en su sentencia 189/2021, de 13 de mayo, *"no podemos perder de vista la idea de que la valoración de los proyectos corresponde a la mesa de contratación, de acuerdo con sus conocimientos técnicos. Ello supone que su decisión no puede ser sustituida por el criterio que puedan mantener otros profesionales. Tal criterio puede ser perfectamente válido. Ahora bien, en la medida en que no es a ellos a quien corresponde adoptar la decisión, sino a la mesa de contratación, hemos de estar a lo decidido por esta. De tal manera que solo podrá sustituirse la decisión de la mesa de contratación en los casos en que quede debidamente acreditado que cayó, al tomarla, en error manifiesto, o que incurrió en arbitrariedad, o que actuó contraviniendo lo dispuesto en los pliegos"* (fundamento jurídico sexto).

Era berean, diskrezionalitate tarte hori mugatzeko faktorerik garrantzitsuenetako bat da, errekurtsoan bertan aipatutako KEAAren ebazpenetan jasotzen den bezala (102/2013 Ebazpena, martxoaren 6koa, edo 715/2019 Ebazpena, ekainaren 27koa), *«zabaltasun egokia duen balio-banda bat ezartzea»,* zeina, aztertzen ari garen irizpidearen kasuan, 6 puntura mugatzen baita 100 puntu posibleetatik, eta horrek zentzuz murrizten du balorazio diskrezionalaren eremua.

Asimismo, uno de los factores más importantes para poder limitar ese margen de discrecionalidad es, como se recoge en las Resoluciones del TACRC citadas en el propio recurso (Resoluciones 102/2013, de 6 de marzo, o 715/2019, de 27 de junio), *"establecer una banda de valores con una amplitud adecuada"* que, en el caso del criterio que nos ocupa, se limita a 6 puntos sobre un total posible de 100, lo cual reduce razonablemente el ámbito de la valoración discrecional.

Beraz, funtsezkoa dena da balorazioa AKPAn aurreikusitako irizpideen arabera arrazoituta egotea, eta ez hartzea lizitazioaren emaitza aldatzeko asmoz.

Lo esencial, por tanto, es que la valoración esté motivada atendiendo a los criterios previstos en el PCAP, y no se adopte con la intención de alterar el resultado de la licitación.

Bada, auzitegi honen ustez, kasu honetan, txosten teknikoan ezarritako eta kontratazio mahaiak bere egindako balorazio proposamena nahikoa arrazoituta dago. Eskaintzak homogeneizatzeko

Pues bien, este Tribunal considera que, en este caso, la propuesta de valoración establecida en el informe técnico y asumida por la mesa de contratación está suficientemente razonada. Parte de definir un criterio

irizpide bat definitzen hasten da, eta, ondoren, giza baliabide gehigarri gehien eskaintzen duena gehieneko erreferentziatzat hartuta, gainerako eskaintzei puntuazio txikiagoa ematen die modu proportzionalean.

para homogeneizar las diferentes ofertas para, a continuación, tomando como referencia máxima aquélla que ofrece el mayor número de medios humanos adicionales, ir otorgando menor puntuación al resto de las ofertas de forma proporcional.

Ezin da pentsatu metodo hori aplikatzeak berekin dakarrenik kontuan hartzea eskaintzak prestatzeko unean ezagutu izan balira prestakuntza horretan eragina izan zezaketen elementuak; izan ere, enpresek ezagutzen zuten AKPAk ezartzen zuena, eta jakitun ziren irizpide hori baloratzeko balio judizio bat behar zela, diskrezionalitate teknikoan oinarrituta.

No puede considerarse que la aplicación de este método implique tener en cuenta elementos que, de haber sido conocidos en el momento de la preparación de las ofertas, habrían podido influir en tal preparación, porque las empresas eran conocedoras de lo que establecía el PCAP, y eran conscientes de que la valoración de este criterio requería un juicio de valor apoyado en la discrecionalidad técnica.

Era berean, ez da ikusten metodo hori hartu denik kontuan hartuta lizitatzaileren baten kalterako diskriminazio efektua izan dezaketen elementuak. Balorazioak elementu edo jarraibide batzuk sartu ditu erantzun koherente eta arrazoitua emateko balio judizio bat eskatzen duen irizpide bati buruz, AKPAn guztiz zehaztuta ez zegoen egoera bati erantzuna ematearren. Prozesu hori lizitatzaileen eskaintza ekonomikoa ezagutu aurretik egin zen, eta, beraz, balorazio prozesuaren azken emaitza ezagutu aurretik, eta ez da inolako elementu diskriminatzailerik ikusi.

Tampoco se aprecia que ese método haya sido adoptado teniendo en cuenta elementos que pudieran tener un efecto discriminatorio en perjuicio de alguno de los licitadores. La valoración ha introducido elementos o pautas para ofrecer una respuesta coherente y motivada sobre un criterio que requiere un juicio de valor, con el fin de dar respuesta a una situación que no se encontraba totalmente predeterminada por el PCAP. En este proceso, efectuado antes de conocer la oferta económica de los licitadores y, por tanto, antes de conocer el resultado final del proceso de valoración, no se aprecia elemento discriminatorio alguno.

**HAMABOSGARRENA.- Formula aplikatzean egindako akatsari buruz.**

**DECIMOQUINTO.- Sobre el error en la aplicación de la fórmula.**

Errekurtsoaren azken arrazoi gisa, errekurtsogileek uste dute akats bat gertatu dela eskaintzak baloratzeko txostenean ezarritako formula aplikatzean, «obrari esleitutako langileak» irizpidearen puntuazioa ematerakoan.

Como último motivo del recurso, las recurrentes entienden que se ha producido un error en la aplicación de la fórmula establecida en el informe de valoración de las ofertas al asignar la puntuación del criterio “personal asignado a la obra”.

Zehazki, formula aplikatzeko modua azaltzen duen azken tartekiari egiten diote erreferentzia, honako hau adierazten duenari: *«kasuren batean kontraesana badago memoriaren zati desberdinetan esleitutako dedikazioen artean, zehatzena hartuko da kontuan, edo, halakorik ezean, ehunekorik txikiena»*

Se refieren, en concreto, al último inciso en el que se explica la forma de aplicar la fórmula, cuando aclara que *“si en algún caso existiera contradicción entre las dedicaciones asignadas en diversas partes de la memoria, se considerará la más exacta, o en su defecto el porcentaje menor”.*

Azken arrazoi hori, ordea, ezin da onartu, ez baitu behar bezala interpretatzen kontratazio mahaiak egindako balorazio prozesua.

Este último motivo, sin embargo, tampoco puede ser acogido, ya que no interpreta correctamente el proceso de valoración llevado a cabo por la mesa de contratación.

MOYUA-AMENABAR taldeak aurkeztutako eskaintzan topografoari emandako balorazioari dagokionez, topografo bat atxikitzeko konpromisoaren puntuazioa ez zen 0 puntukoa izan behar, errekurtsogileek defendatzen duten bezala. Memorian sartutako organigraman ez da dedikazioa zehazten, baina obrari atxikitako pertsona gehigarriak eta horien dedikazioa zerrendatzen den taulan zehazten da pertsona horren dedikazioa % 100ekoa dela. Beraz, itxurazko kontraesana ikusita, memorian azaldutako irizpidea aplikatu da: erreferentziarik zehatzena.

En cuanto a la valoración de la topógrafa en la oferta presentada por la agrupación MOYUA-AMENABAR, la puntuación del compromiso de adscribir una topógrafa no tenía que haber sido de 0 puntos como defienden las recurrentes. En el organigrama incluido en la memoria no se especifica la dedicación, pero en el cuadro donde se relacionan las personas adicionales adscritas y su dedicación a la obra se especifica una dedicación de esta persona del 100%. Por tanto, ante la aparente contradicción, se ha aplicado el criterio explicado en la memoria: la referencia más exacta.

Ordezkariari dagokionez, errekurtsoari buruzko txostenak akats bat dagoela onartzen du, baina, bestalde, argi uzten du akats horrek ez duela ondoriorik izan behin betiko puntuazioan, dedikazioa partzialtzat hartu behar baitzen, organigraman jasotzen den bezala, erreferentzia zehatzena delako. Horrela, eta errekurtsogileek defendatutakoaren kontra, aplikatutako metodoaren arabera baloratzeak adjudikaziodunen puntuazioa 0,1 puntu handitzea ekarriko luke. Horri esker, modu proportzionalean esleitutako puntuazioa banatzeko tartea zabaldu egingo litzateke, nahiz eta modu minimo eta ia hauteman ezinean izan, eta, horren ondorioz, eskaintzen arteko puntuazio aldea handitu egingo litzateke –gutxi bada ere–.

En cuanto al Delegado, el informe acerca del recurso reconoce la existencia de un error, pero, por otro lado, aclara que ese error no ha tenido efecto en la puntuación definitiva, ya que debería haberse considerado su dedicación como parcial, tal y como se recoge en el organigrama, por tratarse de la referencia más exacta. De esta manera, y en contra de lo defendido por las recurrentes, su valoración conforme al método aplicado supondría un incremento de la puntuación de las adjudicatarias en 0,1 puntos. Con ello se ampliaría, aunque sea de forma mínima y apenas apreciable, la horquilla en la que se distribuye la puntuación asignada de forma proporcional, lo que daría como resultado una ampliación –mínima- de la diferencia de puntuación entre las distintas ofertas.

ERAIKUNTZA BIRGAIKUNTZA ARTAPENA SL eta CYCASA CANTERAS Y CONSTRUCCIONES SA enpresek aurkeztutako eskaintzan antzemandako akatsak ere ez dira adierazgarriak errekurtso honen ondorioetarako, ez baitute benetako eraginik adjudikaziodunen eta errekurtsogileen eskaintzen balorazioaren azken emaitzan.

En cuanto a los errores detectados en la oferta presentada por las empresas ERAIKUNTZA BIRGAIKUNTZA ARTAPENA, S.L. y CYCASA CANTERAS Y CONSTRUCCIONES, S.A., tampoco resultan relevantes a los efectos del presente recurso, al no tener incidencia real alguna en el resultado final de la valoración de la oferta de las adjudicatarias, y tampoco en la de las recurrentes.

Beraz, errekurtsoari buruzko txostenak berak aitortutako akats materialen bat gorabehera, lortutako puntuazioa behar bezala bideratzen da

Más allá, por tanto, de algún error material reconocido por el propio informe acerca del recurso, la puntuación resultante se reconduce

txosten teknikoan bertan aldez aurretik ezarritako metodora.

**HAMASEIGARRENA.-** Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegia errekurtsogileei isun bat jartzera eraman dezakeena, SPKLak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Horren arabera, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

**ERABAKI DU**

**LEHENA.-** ACCIONA CONSTRUCCIÓN SA eta ALTUNA Y URÍA SA enpresek kontratazio arloan aurkeztutako errekurtso berezia ezestea.

**BIGARRENA.-** Adjudikazio egintzaren etenaldia indargabetzea.

9/2017 Legearen 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

adecuadamente al método previamente establecido en el propio informe técnico.

**DECIMOSEXTO.-** No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a las recurrentes una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

**ACUERDA**

**PRIMERO.-** Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por las empresas ACCIONA CONSTRUCCIÓN, S.A. y ALTUNA Y URÍA, S.A.

**SEGUNDO.-** Levantar la suspensión del acto de adjudicación.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2022ko ekainaren 9a / San Sebastián, 9 de junio de 2022.**